

produktu eta ekipamenduen
erosketarekin zerikusia duten
prebentzio-baldintzak

10

INFORMAZIO-GIDA



DEFINIZIOAK

Gida hau, gai kimikoak eta prestakin arriskutsuak, hala nola laneko ekipamendua (makinak, aparatuak, etab.), tresneria, segurtasun-materiala eta norbera babesteko ekipamendua erosten dituztenei zuzendua dago.

Gai kimiko arriskutsua



Gai arriskutsutzat jotzen da honako ezaugarri hauetakoren bat edo gehiago izan ditzakeen hura: suteak edo eztandak eragitea, osasunarentzat arriskutsua (kaltegarria, toxikoa, korrosiboa edo narritagarria) izatea edo ingurumenarentzat arriskutsua izatea.

Prestakin arriskutsua

Prestakin arriskutsutzat jotzen da bi gai edo gehiagoz osatutako nahastura edo disoluzioa. Aplikazio-eremu honetatik kanpo geratzen dira beren legeria espezifikoaren bidez araututako produktu hauek: gizaki edo animalientzako botikak, kosmetikoak, hondakin toxiko edo arriskutsuak, pestizidak, munizioak eta lehergailuak, elikagai bukatuak eta animalientzako elikagai bukatuak.

Segurtasuneko tresneria / materiala

Oro har, istripuak edo arrisku biologiko, kimiko edo beste nolanahikoak (adibidez, ezbeharrezko ziztadak saihesteko estalkia duen orratza) saihestera bideratutako ezaugarri edo aplikazioak dituen edozein tresna, ontzi edo gauzaki.



Laneko ekipamenduak

Lanean erabiltzeko edozein makina, aparatu, tresna edo instalazio.

Norbera babesteko ekipamendua

Langileak soinean edo bere gorputzari lotuta eramateko edozein ekipamendu edo osagarri, lanean bere segurtasuna edo osasuna mehatxa dezaketen arriskuetatik babes dezan.

Segurtasun-datuen fitxa



Fabrikatzaileak gai bat edo prestakin kimiko arriskutsu bat ekartzean berorrekin batera entregatu behar duen ziurtagiria; bertan gaiaren konposizio kimikoa, bere toxikotasuna, arriskua eta erabili eta biltegian jasotzeko modu egokia jasotzen dira, bai eta honakoak ere: bere erabilerak dituen arriskuak eta arrisku horietatik babesteko baliabideak, manipulatu, ontziratu eta etiketatzeko baldintzak, lehen sorospenak, suteen aurka borrokatzeko neurriak, eta ezbeharrez ihes egin edo isuriz gero hartu beharreko neurriak.

Fabrikatzailearen adostasun-aitorpena

Fabrikatzaileak laneko ekipamenduarekin batera entregatu beharra daukan berme-ziurtagiria, ekipamendu horrek erabilia izateko segurtasun-baldintza on-onak betetzen dituela segurtatzen duena.

HORRI DAGOZKION ARRISKU NAGUSIAK

Erosten denaren arabera, modu askotako arriskuak daude: gai edo prestakin kimiko bat, ekipamendu bat, etab. Substantzien eta prestakin kimikoen kasuan, arrisku nagusiak era askotakoak izan daitezke. Besteak beste, honako hauek:

- **NARRITADURAK**
- **INTOXIKAZIOA**
- **ERREDURAK**
- **SUTEA/EZTANDA**

Arrazoi hauek direla medio:

- Produktuak ez ezagutzea: arriskuen ezaugarriak, biltegitartzeko baldintzak, produktua modu seguruan erabiltzeko arauak.
- Lan egiteko metodo seguruak ez ezagutzea.
- Zenbait produktu baldintza on-onetan erabiltzeko azpiegitura egokiak (instalazio elektrikoa, aireztatzeko sistema, etab.) ez edukitzea.

Ekipamenduen kasuan ere, era askotako arriskuak egon daitezke:

- **HARRAPATZEAK, EBAKIAK.** Parte mugikorrek, hortzek, ekipamendua erabiltzean indarrez irtendako substantziek, etab.ek eraginak.
- **ERREDURAK:** Alderdi beroak/hotzak ukitzeagatik, ziprztinengatik, etab.
- **KONTAKTU ELEKTRIKOAK:** Tentsiopean dagoen makineriaren zatiak ukitu edo manipulatzegatik.
- **ERRADIAZIOPEAN EGOTEA:** Berdin erradiazio ionizatzaileen eta ez ionizatzaileen pean.
- **SUTEA/EZTANDA.**

Arrazoi hauek direla medio:

- Ekipamenduak erabiltzeko modua ez ezagutzea, edo jarraibideen eskulibururik eta/edo prestakuntzarik ez izatea.
- Ekipamenduak (instalazio elektriko prestatuek, aireztapen egokiak, etab.) ondo ibiltzeko behar dituen azpiegituren falta, eskakizun teknikoak ez betetzeagatik zenbaitetan.

PREBENTZIOZKO NEURRIAK

Produktu kimiko arriskutsuen edo laneko ekipamenduen pean egoteagatik sortzen diren arriskuak ahalik eta gehien saihestearren, egokitzen jotzen da produktuei buruz informazio gehiago eskatzea erosketa lizitatu aurreko fasean, bete beharreko baldintza bat gehiago bezala. Zuzeneko erosketetan, edo produktu edo ekipamendu bat biltegira edo erosketen ardura duten sailtara eskatzen denean ere, ondoko paragrafoetan adierazten den informazioa eskatu beharko da.

Gai kimiko arriskutsuak eta prestakin arriskutsuak erostea.

Erositako **produktu eta/edo gai kimiko arriskutsu** guztiek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Beren edukia eta arriskuak argiro identifikatuz ontziratuta eta etiketatuta egotea (segurtasun-piktogramekin eta guzti), legeak agintzen duen bezala.
- Hornitzaileari edo erosketen ardura duen sailari produktuaren **Segurtasun Datuen Fitxa** bidal dezala eskatuko zaio.



Talde honetan sar daitezkeen produktuak dira, adibidez:

- Garbiketa: xaboiak, detergenteak, garbigarriak.
- Desinfektagarriak, antiseptikoak.
- Argizariak.
- Disolbatzaile organikoak, hala nola azetona, alkohol isopropilikoa, xilenoa, etanola, etab.
- Formaldehidoa, etilen oxidoa.
- Anestesiatzeko produktuak.
- Pinturak, disolbatzaileak, dekapatzaileak, esmalteak.
- Kolak, silikonak.
- Deskoipetzaileak, libratzaileak, etab.
- Gas konprimatuak.
- Errebelatzeko likidoak, finkatzaileak, etab.

Laneko ekipamenduen erosketa



Laneko ekipamenduaren hornitzaileari edo erosketaren edo banaketaren arduradunari eskatutako ezaugarri teknikoez gainera, honako baldintza hauek bete ditzala galdatu behar zaio:

- Fabrikatzailearen adostasun-aitorpena.
- CE marka.
- Jarraibideen liburua gaztelaniaz.

Ekipamendua hartzerakoan, baldintza horiek betetzen direla egiaztatu behar da, ekipamendua behin betiko hartzeko baldintza gisa.

Segurtasuneko tresneriaren / materialaren erosketa

Kontsultatu kasua Laneko Osasun Zerbitzuarekin (POU).

Norbera Babesteko Ekipamenduen erosketa

Norbera Babesteko Ekipamenduaren hornitzaileak, eskatutako ezaugarri teknikoez gainera, beste hainbat baldintza bete behar ditu, hala nola:

- CE marka.
- Zein **arrisku-motatarako** diren.
- Arriskuaren aurkako **babes-maila**.
- Zuzen erabili eta mantentzeko modua.

INFORMAZIO GEHIGARRIA

SEGURTASUN-DATUEN FITXAREN BALDINTZA MINIMOAK

Honako hauek dira:

- Gaiaren edo prestakinaren, eta sozietatearen edo enpresaren identifikazioa.
- Konposizioa eta osagaiei buruzko informazioa.
- Arriskuen identifikazioa.
- Lehen sorospenak.
- Suteen aurka borrokatzeko neurriak.
- Ezbeharrezko ihes/isurietan hartu beharreko neurriak.
- Manipulazioa eta biltegiratzea.
- Norbera produktuen pean egoteko/babesteko kontrolak.
- Ezaugarri fisiko eta kimikoak.
- Erreaktibotasuna eta egonkortasuna.
- Informazio toxikologikoa.
- Informazio ekologikoa.
- Ezabatzeari buruzko gogoetak.
- Garraioari buruzko informazioa.
- Arauei buruzko informazioa.

ADOSTASUN-AITORPENERAKO BALDINTZA MINIMOAK

Honako hauek dira:

- Fabrikatzailearen edo Erkidegoan horren ordezkariaren izena eta helbidea.
- Laneko Ekipamenduaren deskripzioa.
- Ekipamenduari aplikatu behar zaizkion eta bete behar dituen arau europar harmonizatu guztien zerrenda.
- Kontrol-erakundearen izena eta helbidea eta CE ziurtagiri-motaren zenbakia.
- I435/92 EDko 8. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letrako lehen marran dioena betetzearen, espedientearen berri eman zaion kontrol-erakundearen izena eta helbidea.
- I435/92 EDko 8. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letrako bigarren marran dioena betetzearen, egiaztapena egin duen kontrol-erakundearen izena eta helbidea.
- Kasua balitz, erabili izan diren Estatuko arau eta zehaztapen teknikoak. Fabrikatzailea edo horren ordezkaria lotesteko sinatzaile ahalordedunaren identifikazioa.